

KULTURKRITIKA


» LIBURUA

Oso gauza serioa



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Kadrila alegera festan da

JUSEF URRUTY-BORDE

Pamiela, 1988

Bainaren belaunaldiaz ari dela, hauxe dio Beñat Sarasolak: “Ez zuten inolako beldurrik edo lotsarik nahi zutena idazteko”. Orain ez bezala, kontsentsu denen aurrean *bainak* jartzeko prest zeudela, alegia. “Askatasun handia sumatzen dut testu haietan. Nahi dutenaz idazten dute, eta nahi duten tonuan”. Ubera hori hartuta esango nuke dagoela idatzita *Kadrila alegera festan da*. Delako balazta, miramendu, errespeturik gabea. Guztiz askea. Eta aipatuko dugu, bistan da, egilea. Baina, liburuan bertan ohartarazten zaigun gisan, “ez galda nor den errailea, baina errana har ongi gogoan”.

Errana, beraz, zertan den: “Kadrila alegerak egun hautan egin gogoeta zoin burutazio”. Hizkera samurragora ekarriz: broma handi bat. Biltzen direlako Tartas, Gazteluzar, Harizmendi eta abarrekoak, Bertrand de Etxauz apezpikua bera. Kadrila osoa, alegia –edo ia: “Aita Larramendi ez zen izan gonbidatua”–. Eta biltzen direlako orriotan ustez horiek guztiek idatzitako permisioniak, irakhurtzaileari oharrak, ipuin, poema, sermoi, berriketa eta abarrekoak. Denak ere aski falozentrikoak –ez bakarrik irudiak; eder askoak horietarik gehienak–. Batzubaizuk puskaz androzentrikoak: “Jinkoaren semiak, jujamendu emanen du faborable senarraren alde, emaztiaren kontra”. Emakumea, alegia, ez dela Etxepareren *Emazteen fabore* hartakoa bezalakoa: “Gizona eta emaztekoa gudukan, liskarran, disputan, erreiartan bizi dira, gizona sortuz gero mundu hontan”. Baina, alea bihitik bereizita –“ene izkiributarik azal eta kanpoko den oro, bazter eginik soizu barrenagorak”–, liburua da benetan barre

emangarria. Mongongo Dassantza agertzen da, esaterako, “enixetan ekhartzen duela bere belhar eta onddo hautuenetarik”. Auskalo orriok ere izan diren horien eraginpean idatziak.

Ikusirik nor den izkribatzailea (Josef Urruty-Borde), nor den irudigilea (Enry Kapondes Spondanus), ez da erabat okerra ondorioztatzea liburuaren egilea dela Jose Enrike Urrutia Capeau. Edo egile nagusia, liburuan zehar agertzen baita, marrazkitua behintzat, kadrila bera. Ez zehazki *Bainaren* belaunaldikoa –nahiz Pott taldearen bueltan ibili zen, adibidez, Capeau–, baina bai akaso garaia izpiritua arnasten duena. Liburua 1979an argitaratu omen zen, nahiz hemen darabilgun bertsiola den 1988koa. Idazle partikularra Capeau. Haren idazkera du seinale. “Idazteko zaletasuna hizkuntzatik etorri zait, ez neurri berean literaturatik beretik”. “Neuk ere nahi dut Borgesek bezala egin...”, ez. “Nire kasuan hizkuntza izan da. Han eta hemen ikasitako moldeak nahastea-eta. Jolas hori”. Jolasa, beraz. Broma handi bat, esana dugu. Eta broma handi guztiak bezala, oso gauza serioa. ■



Jose Enrike Urrutia Capeau idazle eta irudigile iurretarra

MIEL A. ELUSTONDO